

EUSKAL HERRIKO ETA MUNDUKO 25 URTEKO KRONOLOGIA (1873-1897)

XIX. mendearen azkeneko 25 urteak, hau da, Teresa Lisieux-koa karmeldar santa gaztea lurrean bizi zenekoa (1873-1897), gertaera sozial eta erlijioso, politiko eta militar garrantzitsuz hornituak daude...

Europar izan ziren iraultza larri, jazarpenak Elizari, desamortizazioak eta Elizari egindako lapurketak... gertatu ondoren, erlijio katolikoak gizatasun eta santutasun, adimen eta adorezko... fruitu harrigarriak eman zituen, berritze izpiritual ederra lortuz. Bidasoaz hemendiko eta handiko batzuk soilik aipatzeko, hona hemen: Michel Garikoits santua (1797-1863), Balentin Berrio-Otxoa santua (1827-1867), Louis Edouard Cestac (1801-1868), Esteban Adoain (1808-1880), Santa Vicenta Maria Lopez eta Vicuña (1847-1890), Charles Lavigerie (1825-1892), Rafaela Ibarra Aranbarri doatsua (1843-1900), Maria Antonia Bandres Elozegi doatsua (1898-1919), Maria Bihotz Sakratuarena (1842-1912), Candida Maria Jesusena dohatsua (1845-1912), Ramon Zubieta (1864-1921), M. Angeles Sorazu (1873-1921), Frantzisko Garate dohatsua (1851-1929), Margarita M^a Lopez de Maturana (1884-1934) Joan Bizente Jesus Mariarena Zengotita-Bengoa (1862-1943), etab.

Eta pertsona hauek sortutako mugimendu izpiritualak Teresa Lisieux-koaren garaian kokatu behar dira, XIX. mendearen bigarren erdiko gertaera sozio-politikoaren artean. Inperialismo berri batek (britaniarrak, frantziarrak, alemaniarak, espainiarrak...) Afrikan jarriak ditu batez ere begiak... Europar iraultza sozial eta politikoez gogor astintzen dute gizartea... komunikabide ezberdinetan egiten den aurrerapena handia da, zientziek bultzada indartsua jasotzen dute... Asmapen teknikoek denboraren joana lasterragotu egiten dute... Mundu eta ingurumari horretan du Teresa Lisieux-koak Normandiako herrialdean Jainkoaren Maitasunaren esperientzia.

Kronologia hau egiteko, jarraiko liburuok erabili ditugu: Kurt M. JUNG, *Weltgeschichte in einem Griff*, Berlin 1979, 1288 orr.; *Crónica de la humanidad*,artzelona 1987, 1184 orr.; *Crónica de España*,artzelona 1988, 2. liburukia; Gertraude WILHELM, *Hermes Hand Lexikon. Synchronopse der Weltliteratur*, Düsseldorf 1983, 288 orr.; *L'Histoire et ses méthodes (Encyclopedie de la Pléiade)*, Bruges 1961, 1774 orr.; Georges BUBY [Zuz.], *Histoire de la France. Les temps nouveaux de 1852 à nos jours*, Paris 1994, 687 orr.; O de la BROUSSE - M. HENRY - Ph. ROUILLARD [Zuz.], *Diccionario del cristianismo*,artzelona 1986, 1103 orr.; Miguel ARTOLA [Zuz.], *Enciclopedia de Historia de España, VI, Cronología, Mapas, Estadísticas*, Madril 1993, 1241 orr. Horiekin batera aztertu ditugu Euskal Herriari buruz diharduten beste liburu batzuk ere.

J. Urkiza - A. Lobera